

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Xanti Enparantza Leunda*

*Beasain,  
Gipuzkoa (1946)*

Aurkibidea



## Biografia



"Errementari" (Ermentari) baserrian jaioa. Bere aita Angel Enparantza zen, Beasaingo errementari eta ferratzailea. Beasaingo eta inguruko baserritar guztiak joaten ziren beraingana ganadua ferratzera; baserriko tresnak ere egiten zituzten. Xantik ere lagundu izan zion aitari lan horietan. Errementari lana 1965 inguruan utzi zuten. "Errementari" baserria 2005ean bota zuten. Xanti futbolari amorratua ere izan da. Gazterik hasi zen Beasaingo taldeetan jokatzeko, eta gerroago Sansen, Ordizian (Villafranca), Legazpian eta Bergaran jokatu zuen.

## Zintak

### BEA-049

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-04-05
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Badihardugu Euskara Elkartea

## Pasarteak

### 1. Errementari baserrian jaioa

- **Erref:** BEA-049/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

#### Laburpena:

Xanti Enparantza Leunda (1946-02-07), Beasainen bertan jaioakoa, Errementari izeneko baserrian. Garai batean aitona eta aita errementari eta perratzaile lanetan aritutakoak. Baserriko tresnak ere egiten zituzten. 1965 inguruan utzi zuen aita.

### 2. Beasaingo Errementari baserria

- **Erref:** BEA-049/003

- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

**Laburpena:**

Duela gutxira arte "Ermentari" (Errementari) baserrian bizi izan dira.

### 3. Errementari baserri ingurua 1960 aldean

- **Erref:** BEA-049/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

**Laburpena:**

Beasainen, eskola nazionaletan ibilitakoa. Beraien baserria herrigunetik nahiko urruti geratzen zen. Soro ugari, zerrategia, etab. Ingurua nolakoa zen: baserriak, errota, dolarea, etab. Baserri izenak. Oria ibaia.

### 4. Igartzako presa eta Oria ibaia

- **Erref:** BEA-049/005
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

**Laburpena:**

Oria ibaia. Lehenago gaur baino euri gehiago egiten zuen eta behin baino gehiagotan uholdeak izan dituzte. Igartzako presa. Ibaia beti oso zikina ezagutu du.

### 5. Ferratzaile lanak; aita eta aitona errementariak

- **Erref:** BEA-049/006
- **Iraupena:** 0:06:00. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

**Laburpena:**

Ferratze lanak. Behiak, idiak, astoak, mandoak eta beste animalia batzuk ferratzen zituzten. Aitari nola laguntzen zioten. Lanaren inguruko azalpen zehatzak.

## 6. Ferratzaileen lanak

- **Erref:** BEA-049/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

### Laburpena:

Ferratzaileak lan asko izaten zuen. Larunbat eta igandetan bizikletaz joaten zen baserrietara lan txikiagoak egitera; Mandubira, Garinera, eta abar.

## 7. Ferratzaileen lanak eta erremintak

- **Erref:** BEA-049/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

### Laburpena:

Abereak ferratzeko erabiltzen ziren tresnak: "pujamanta", esate baterako.

## 8. Abereak ferratzearen inguruko kontuak

- **Erref:** BEA-049/009
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

### Laburpena:

Abereak piferratzearen inguruko kontuak.

## 9. Beasaingo gazteen artean futbolak indar handia zeukan (1950-1960 inguruan)

- **Erref:** BEA-049/011
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

Nola hasi zen futboleak jokatzen. Edozein tokitan ibiltzen ziren futboleak; bidean, eskolan; geltoki ondoan, eta abar. Gazteek, futbolerako pilotarako baino zaletasun handiagoa zuten. Txapelketak antolatzen ziren: kaleen artekoak, esate baterako. Loinazko futbol zelaia. Beasainen betidanik ezagutu du futbolerako zaletasun handia.

## 10. Lagunarteko futbol txapelketak

- **Erref:** BEA-049/012
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

<p>Futbolean lagunartean egin ohi zuten gehienetan, San Martingo plazan, besteak beste; gero hasi ziren lagunarteko txapelketak luistarrek antolatuta. Nafarroa etorbide izenez ezagutzen zen Xantiren taldea. Talderik onenak Bideluze eta Arana kalekoak ziren.</p>

## 11. Beasain mailaz jaitsi zenean, zaharragoekin entrenamenduetan

- **Erref:** BEA-049/014
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

Beasain 3. mailatik jaitsi zen urtean 18 urte zituen eta zaharragoekin hasi zen entrenamenduetan. Entrenatzaileak ez zuen jarraitzeko animatu eta futbola utzi egin zuen. Anekdotak bat kontatzen du gaur egun ere ezaguna den Miguel Angel Lamataren inguruan eta bere iritzia ematen du.

## 12. Sanse eta Realeko jokalaririk izan zenekoak

- **Erref:** BEA-049/015
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:38:06. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

<p>Jendeak animatuta hurrengo denboraldian berriz ere futbolera bueltatu zen. Donostiako Sanse taldeak deitu zuten eta hara joan zen eta Realeko jokalariekin egin zituen lehendabiziko entrenamenduak. Berarentzat haiekin jokatzea ikaragarria zen. Lasarten egiten zituzten entrenamenduak eta jende pila izaten zuten ikusle gisa.</p>

## 13. Soldadutza Baztanen egin zuen

- **Erref:** BEA-049/016
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:42:07. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

<p>Soldadutza Baztanen egin zuen eta han zegoela fitxatu zuten Donostian. Asentamendua zegoen Pirinioetako gunearen barruan eta radar eta ekipamendu teknikoa erabiltzen zen mugimendua kontrolatzeko. Handik Donostiara joan zen eta bertan egoten zen.</p>

**14. Futboleko arropa eta oinetakoak**

- **Erref:** BEA-049/017
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Orduko futboleko arropen inguruan hitz egiten du. Baloiak larruzkoak ziren lehenago eta ondoren plastikoa erabiltzen hasi ziren.

**15. Kromoak eta baloiak**

- **Erref:** BEA-049/018
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:48:21. **Bukatu:** 00:50:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Umetan baloia izatea ikaragarria zen. Futbolarien kromoekin bilduma egin eta baloia lor zitekeen eta hura lortzen zuena miretsi egiten zuten. Gomazko baloiak izaten zituzten puzteko aukera zutenak.

**16. Ordizia eta beasaindarren arteko pikeak futbolean**

- **Erref:** BEA-049/019
- **Iraupena:** 0:05:28. **Hasi:** 00:50:12. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

<p>Beasaindarrak Real eta Athletic zaleak ziren. Inguruko herrietan Ordiziak zeukan futbol talde onena eta elkarrenganako pike handia zuten. Xantik ere jokatu zuen Ordizian. Maila berean jokatu arren lehia handia izaten zen. Senpere izan zen lehenengo futbol zelaia Loinazkoa jarri bitartean. Bi herrien arteko pikea aipatzen du.</p>

**17. Jokalari izan zen garaian pasatako taldeak**

- **Erref:** BEA-049/021
- **Iraupena:** 0:06:29. **Hasi:** 00:58:24. **Bukatu:** 01:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Sansetik Beasaina pasa zen eta Tolosara joateko gonbidapena ere egin zioten, baina Beasainen geratu zen. Handik Ordiziako Villafranca taldera pasa zen. Hango zelaia eskasa zen baina talde ona zuen, Berbenetako diruarekin laguntza jasotzen baitzuten. Ordizian amaitu eta Legazpira joan zen eta jokalaria gailenaren titulua irabazi zuen. Handik Bergarara joan zen eta berriz ere Tolosara pasa eta harekin bukatu zuen ibilbidea, izandako lesioak zirela eta.

**18. Entrenatzaile lanetan Beasainen**

- **Erref:** BEA-049/022
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:04:53. **Bukatu:** 01:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Jubeniletako futbol talde bat entrenatzen hasi zen eta hurrengo urtean goiko taldera pasa zen. 24 urteko gazteak entrenatzea ez zuen atsegin eta berriz ere jubeniletara pasatzea eskatu zuen. 7-8 urte egin zituen lan horretan.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2025-12-17*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com